



**NAFARROAKO GOBERNUAK GIZARTE-ZERBITZUEI
BURUZ AURKEZTUTAKO ZORRO PROIEKTUAREN
GAINEAN ELAK EGITEN DUEN BALORAZIOA**

Iruñea, 2008ko urtarrilak 29

Gaur egun ez dago gizarte zerbitzuei estaltzen duten sare publikorik.

Gaur egun Nafarroan 40.376 menpeko pertsona (21.994 gizon eta 18.382 emakume) daude. 40.376 pertsona hoietatik bakarrik %25a daukate mota bata edo besteko estaldura, alegia, %75a ez dute laguntza publikorik.

%75a ESTALDURARIK GABE



1. Ez du estaldura unibertsalik eskaintzen

Legearen 5. artikulua unibertsaltasuna aipatzen du printzipio lehenengotzat, baina zorro proiektuak ez du betetzen printzipio hori, eskubideak bermatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar direlako eta baldintza hoiek gehiegizkoak dira.

Hau da, zerbitzuen unibertsaltasuna printzipioaren aipamen hutsean geratzen da, berez, menpeko pertsonak, zerbitzua hartu ahal izateko, zorroa zehazten diren baldintza gehigarri batzuk bete beharko dituzte eta.

2. Bermatutako prestazioak eta bermatu gabeko prestazioak

Aurkeztutako zorro proiektuak bermatu eta bermatu gabeko prestazioak desberdintzen ditu. Lehendabizikoak exijitu daitezke administrazio eta justiziari eta bigarrenak ezin dira exijitu eta aurrekontuen arabera geratuko dira.

Beraz orain aurkeztutakoa ez du aurrera pausorik suposatzen, orain aurkezten dena menpekotasun legean onartu zegoen eta.

3. Bereizkeriaz jokatzeko du Europako Erkidegotik kanpoko etorkinekiko, horietako gehienek irispidea mugatuz

Horrela, kanpoan uzten ditu Europako Erkidegotik kanpoko pertsonak (horiei kolektibo zehatz batzuetakoak baldin badira edo larritasun, estutasun eta luzaezintasun zehaztugabearen arabera bakarrik egingo zaie arreta).

Oinarrizko errentaren kasuan baldintza bezala eskatzen da eskaintza egin aurretik nafarroan bi urteko frogaturiko egoitza eskatzen da.

4. Ez du estaldura publikorik bermatzen

Zerbitzuen prestazioa bide pribatuaren bitartez egiteko aukera arautzen du testuak, eta ez du kalitateko gizarte-zerbitzu publikorik bermatzen.

Horrek Nafarroako Gobernuaren jardunbidea sendetsi besterik ez du egiten, gobernu horren politikak zerbitzuok sare pribatuaren bitartez eman daitezen sustatzen baitu. Pribatizatzeko eta arlo pribatua subentzionatzeko joera nabaria

duen politika horrek isla argia du aurrekontuetan, batez ere gizarte- eta osasun-laguntzaren atalari dagokionez.

2006an, Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %80 erabiliko du hainbat erakunde eta zentzorekiko hitzarmenetara (adinekoentzako zentroak, baliatzeko ezintasuna duten pertsonentzako laguntzarakoak, buru-osasunekoak,...).

5. Zerbitzuak ordaindu beharra ezartzen du

Pertsonei gizarte-zerbitzuetarako irispidea kentzeko moduetako bat irispide hori diru-kopuru bat ordaintzearen menpe jartzea da. Zerbitzuaren ordainketa edo ordainkidetza esaten zaio horri.

Zorro proiektuak ordaindu beharra ezartzen du, baina ez duena egiten da ordainkidetza horren arauketa. Alegia, ordainkidetzaren bidea hautatzeaz gain, erabat arautu gabe eta kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak unean-unean erabakitzen duenaren menpe gelditzen da.

6. Diru prestazioa

Lehentasuna ematen zaio prestazio ekonomikoari zerbitzu prestazioari baino.

Proiektuan biltzen diren diru prestazioak ez dira nahikoak kalitatezko zerbitua bermatzeko.

7. Enpresa pribatuko langileen lan baldintzak ez dira arautzen.

Kontutan hartu behar da sektore honetan langile gehienak emakumeak direla eta egungo soldatak 1.000 eurotara ez direla iristen askotan eta behin behinekotasuna 60% dela.

8. Ez dakar aurrerapausorik pobreziaren aurkako borrokan

Oinarrizko errentari edo gizarte-larrialdietarako prestazioei buruzko aipamenetan ez da oraingo estalduren inolako hobekuntzarik ageri, biztanleriaren zati handi bat pobreziaren atariaren azpian utziz.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa oso urria da, pobreziaren atariaren azpikoa, zalantzarik gabe. Era horretan, bakarrik bizi den pertsona bati Lanbidearteko Gutxiengo Soldata (LGS) %80 bermatzen zaio. Bi kidek osatutako bizikidetza-unitateak hileko LGSaren %95 dauka bermaturik, eta zenbateko horri LGSaren %10 eransten zaio pertsona gehigarri bakoitzeko, 6 lagun edo gehiagoko unitatearentzat LGSaren %130eko gehienezkoa finkatuta. Diru-kopuru horiekin ezinezkoa da bizimodu duina, autonomoa eta kalitatekoa izaterik. Eta gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektuak ez du egoera hori aldarazten.

ONDORIOZTAPENAK

1. Nafarroako menpeko biztanleen %75ak ez du laguntza publikorik. Egoitza publikoetan eta itunpekoetan, menpeko biztanleen %6,2rentzako tokia besterik ez dago.
2. Gizarte-zerbitzuei buruzko zorro proiektuak ez die menpeko pertsonen beharrei erantzuten; izan ere:
 - Ez du estaldura unibertsalik eskaintzen.
 - Bermatutako prestazioak ez du aurrerapausorik suposatzen.
 - Bermatu gabeko prestazioak ezin dira juduzialki eskatu eta aurrekontuen arabera geratuko dira.
 - Europako Erkidegotik kanpoko etorkinekiko bereizkeriaz jokatzeko du, eta gizarte-zerbitzuetarako irispidea mugatu egiten die pertsona horiei.
 - Ez da estaldura publikorik bermatzen; aitzitik, zorroak erabat irekitzen dizkio ateak Nafarroako Gobernuak garatzen duen pribatizazio- eta sare pribatuaren subentzio-politikari.
 - Ordainkidetza hautatzen da, bide hori administrazio eskudun bakoitzak unean-unean erabakitzen duenaren menpe utziz.
 - Lehentasuna ematen zaio diruprestazioei kalitatezko zerbitzu sareari baino.
 - Lan baldintzak arautu gabe daude.
 - Oinarrizko errentan edo gizarte-larrialdietarako prestazioetan ez da gutxienezko bermerik ezartzen; beraz, oraingo egoera iraunarazteko (edo, baita, okerragotzeko) aukera ematen duelarik, prestazioek ez dute pobreziaren atariaren azpitik ateratzeko balio.